2. ARGITARALDIA

HERRITARRAK

diskurtso politiko xenofoboen aurka

GIDALIBURUAK

Suteen aurkako gida

CEA(R) BIZKAI
Euskadiko Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordea

Bizkaia
Foru Aldundia
Diputación Foral

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
Arabako da erronka
El reto es Álava

Egilea:
Rosabel Argote
(CEAR Euskadi, Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordea Euskadin)

Lankidetza:
Mikel Mazkiaran (SOS Arrazakeria Gipuzkoa)

Finantzazioa:
Bizkaiko Foru Aldundia - Diputación Foral de Álava
Arabako Foru Aldundia - Diputación Foral de Bizkaia

Lege-gordailua:

Argitaratzen du:

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Araba da erronka
El reto es Álava

19 GIDALIBURU

gorroto-diskurtsoei eta diskurtso iraingarriei aurre egiteko

CEAR-Euskadi (Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordea Euskadin)

Lankidetza sortzailea: Los Scribas

Suteen aurkako gida

Suteen aurkako gida honen bigarren edizioan, ARTICLE 19 erakundearen programen zuzendari den David Diaz-Joeizen ekarpenak jaso dira. Halaber, Euskal Herriko Unibertsitateko "Europako Geografia" irakasgaiko (2017-2018 ikasturtea) ikasleen ekarpenak ere jaso dira. CEAR Euskadik bihotzez eskertzen die adierazpen askatasunaren aldeko eta arrazismorik eta xenofobiarik gabeko gizarte kohesionatu baten aldeko borrokan erakusten duten implikazioa eta grina.

AURKIBIDEA

GIDALIBURUAK.....01

GASOLINAREN AURKAKOAK 05

EREMU JURIDIKOA

1_ Idazkia Fiskaltzara bidaltzea.....06
2_ Salaketa laidotutako taldeko kide gisa.....08
3_ Herri akzioa edo herri akusazioa.....12
4_ Auzi estrategikoa.....16
5_ Kalumnia eta/edo irainen ziozko.....18

EREMU INSTITUZIONALA

6_ ESLEri gertakariaren berri ematea.....22
7_ Hobekuntza txostena ADDBren nazioarteko kontseiluari.....24
8_ Salaketa Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluaren aurrean.....28
9_ Erreklamazioa Estatuko Kontseiluaren edo Autonomiako Eraberean Sarearen aurrean.....32

EREMU POLITIKOA

10_ Kexen postontzia eta alderdi politikoen Diziplina Batzordea.....36

ELKARTEEN ETA HERRITARREN EREMUA

11_ Norberak botoa ematea edo botoa lagatzea.....40
12_ Grafitiak gune publikoetan.....44
13_ Gizarte mobilizazioa eta plataformak.....46

TXINPARTAREN AURKAKOAK.....51

NAHASITAKO AIREAREN AURKAKOAK.....55

HEDABIDEEN EREMUA

14_ Zuzendariari gutunak eta iritzi artikuluak.....56
15_ *Crowfunding* bidez ordaindutako publirreportajeak.....58

KATE-ERREAKZIOAREN AURKAKOAK.....61

HEDABIDEEN EREMUA

16_ Kexak prentsa eta telebistako barruko kontrol organoei.....62
17_ Irizpen eskaera Espainiako Kazetarien Elkarteen Federaziora.....66
18_ *Maldito Bulo* eta *Maldita Hemeroteca*.....68
19_ Edukiak ezabatzea sare sozialetan.....70

Behin 19 tresna horiek laburki azalduta, jarraian xehakatu eta garatu egingo ditugu; fitxa bakoitzean xehetasunez azalduko dugu haien edukia, eta tresna bakoitza erabiltzeko jarraibideak jasoko ditugu.

GIDALIBURUAK



GASOLINAREN AURKAKOAK

TXINPARTAREN AURKAKOAK

NAHASITAKO AIREAREN AURKAKOAK

KATE-ERREAKZIOAREN AURKAKOAK

FOAM
FIRE EXTINGUISHER
POWDER
FIRE EXTINGUISHER
WATER
FIRE EXTINGUISHER
CARBON DIOXIDE
FIRE EXTINGUISHER
WET CHEMICAL
FIRE EXTINGUISHER
USE UPRIGHT
REMOVE SAFETY PIN
DIRECT NOZZLE AT BASE OF FIRE FROM AT LEAST 1 METRE
SQUEEZE HANDLE TO OPERATE
WARNING!
DO NOT USE IF PRESSURE INDICATOR ENTERS RED SECTOR
DO NOT USE OUTSIDE SPECIFIED TEMPERATURE RANGE
CO_2
FIRE EXTINGUISHER

GASOLINAREN AURKAKOAK

EREMU JURIDIKOA
EREMU INSTITUZIONALA
EREMU POLITIKOA
ELKARTEEN ETA HERRITARREN EREMUA

01

IDAZKIA FISKALTZARA BIDALTZEA

(BERDINTASUNAREN ZAINTZA PENALAREN ALDEKO ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO PROBINTZIA FISKALTZETARA)

Zer da Fiskaltza?

Fiskaltza dugu erkidegoaren interesak (interes publikoa) defendatzen dituen organo judiziala.

Zer dira Probintzia Fiskaltzak?

Lurralde edo probintzia guztietan, Probintzia Fiskaltza dago.

Estatuko Fiskaltza Nagusiak gobernatzen eta koordinatzen ditu Probintzia Fiskaltza guztiak.

Zer dira Fiskaltza Espezializatuak? Gorroto diskurtsoaren ziozko delituetan espezializatutako fiskaltzarik badago?

Estatuko Fiskaltza Nagusiaren barruan, badira Fiskaltza Espezializatuak, ikertzen dituzten delituen arabera (Atzerritarren Fiskaltza, Genero Indarkeriaren Fiskaltza, Informatika Delituen Fiskaltza…).

Goiko egitura hori Probintzia Fiskaltzetan ere erabiltzen da.

2011ko urtearen amaieran, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren barruan, Berdintasunaren Zaintza Penalaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Fiskaltza sortu zen.

2014tik aurrera, Probintzia Fiskaltza guztiek badute Fiskaltza Espezializatu horretako ordezkari bana dute lurraldean edo probintzian.Fiskaltza horri “Berdintasunaren Zaintza Penalaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Probintzia Fiskaltza” deritzo.

Nork jo dezake fiskal espezializatu batengana?

Zeinahi herritarrek eman diezaioke fiskal espezializatuari ordezkari politiko batek edo esparru publikoan jarduten duen iritzi lider batek egindako ustezko gorroto diskurtsoaren edo diskurtso iraingarriaren ziozko delitu baten berri.

Nola jo dezake pertsona batek gorroto diskurtsoetan espezializatutako Probintzia Fiskaltza honetara?

Berdintasunaren Zaintza Penalaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Probintzia Fiskaltzetara jotzeko, salaketaren xede diren egintzak azaltzen dituen idazkia aurkez daiteke. Hona hemen idazki mota horren adibide bat:

Idazkia “Dekanotzan” aurkeztu behar da, oro har, epaitegia dagoen eraikineko beheko solairuko bulego batean. Idazkia aurkeztu ondoren, jakinarazpenik jaso ezean, idazkia aurkeztu duen pertsonak bere udalerriari dagokion Probintzia Fiskaltzara deitzea dauka eta bere kasuari buruz galdetzea dauka.

Hona hemen Euskal Autonomia Erkidegoko Probintzia Fiskaltzen telefono-helbideak:

ANA ÁVILA TABLADO andrea. Arabako Probintzia Fiskaltza
Gasteiz hiribidea, 18. 01008. 945 00 48 31

EVA ALONSO LORENZO andrea. Gipuzkoako Probintzia Fiskaltza.
Kalkutako Teresa plaza, 1. 20071. 943 00 07 17

ANA LAURA NÚÑEZ PORTILLO andrea. Bizkaiko Probintzia Fiskaltza.
Barroeta Aldamar, 10. 48001. 944 01 66 59

BERDINTASUNAREN ZAINTZA PENALAREN ALDEKO ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO .....(E)KO PROBINTZIA FISKALTZARI

……..... jaunak/andreak, adinez nagusiak, …....…….....……NAN zenbakidunak, ...……(e)n bizi denak, (PK……) ……..... kalean.

Agertzen da eta honakoa **ADIERAZTEN DU**:

Idazki honen bidez, Fiskaltza horri jakinarazi nahi dizkiodala, delitu-egitate izan daitezkeelakoan, ondoko

GERTAKARIAK

1.a …… dela eta sortu den gatazkaren ildoan, …… jaunak/andreak, …… alderdi politikoaren ordezkaritzan, ondoko adierazpenak egin zituela: …… Euskarri hauek erantsi dira (egunkariko albistea), (pantaila argazkia)…

2.a ..

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Kode Zibilaren 510.1 artikuluak ondokoa xedatzen du: “Norbaitzuek talde edo elkarteen aurkako berezikeria gorrotoa edo indarkeria eragiten badute arrazakeria nahiz zio antisemitengatik, edota talde nahiz elkarte horietako kideen ideologia, sinesmen, familia egoera etnia, arraza, nazio jatorri, sexu, sexu joera, gaixotasun edo elbarritasunengatik, orduan, halakoei […] zigorra ezarriko zaie, bai eta […] isuna ere”.

Bigarrena.- Kode Zibilaren 510.2 artikuluak ondokoa xedatzen du: “Zigor bera ezarriko zaie talde edo elkarteen inguruan, faltsuak direla jakinda edo egia ausartegi mespretxatuz, informazio iraingarriak hedatzen dituztenei, baldin eta informaziook horien ideologia, erlijio nahiz sinesmen, edota beren kideen etnia, arraza, nazio jatorri sexu, sexu joera, gaixotasun edo elbarritasunari buruzkoak badira”.

ESKATZEN DUT

1.a Idazki hau aurkeztutzat jo dezazula eta, horren kausaz, salatutako gertaeren inguruko ikerketak eta egiaztapenak bideratu ditzazula, …… helbidean egoitza duen eta …… telefonoa daukan …… alderdi politikoaren ordezkari den …… jaunak/andreak egin bide duen erantzukizun penala zedarritu dezazula.

2.a Ikerketen berri eman diezaiozula salatzaileari, ikerketen ondorioz sortzen diren legezko neurriak hartu ahal izateko.

Bidezkoa delako eskatzen dut, …….....……(e)n, 2018ko .....……aren (e)(a)n .

02

SALAKETA LAIDOTUTAKO TALDEKO KIDE GISA

Zigor Kodeak, izenak iradokitzen duenez, legearen ikuspegitik zigorgarriak diren ekintzak (hau da, erantzun penala merezi dutenak) jasotzen ditu.

Nola jasotzen da gorrotoaren diskurtsoa Zigor Kodean?

Zigor Kodean, gorrotoarren diskurtsoaren ziozko delitua 510. artikuluan araututa dago.

Artikulu horren arabera, lehen atalean, 1 eta 4 urte arteko kartzela zigorra ezarri behar zaie talde kaltebera edo talde horretako kideen aurkako gorrotoa, borroka, bereizkeria edo indarkeria zuzenean edo zeharka eragiten, ahalbidetzen edo sustatzen dutenei.

Artikuluaren bigarren atalak, berriz, 6 hilabetetik 2 urtera arteko zigorra ezartzen die pertsonen duintasunari kalterik ekartzen dieten ekintzak (ahozkoak ere bai) gauzatzen badituzte, ekintzok talde horiek umiliatu, gaitzetsi edo horien ospea zikintzen badute.

Nor babesten du 510. artikuluak?

510. artikuluak gizatalde kalteberak (xede taldeak) babestu nahi ditu, hainbat arrazoi direla eta: etorkinak, LGTBI, dibertsitate funtzionala, erlijioa, generoa…Zigor Kodearen 2015. urteko erreformaren ondotik, arestian aipatu ditugun talde kaltebera horietako kide den zeinahi pertsonak 510. artikulua balia dezake gorroto diskurtsoaren ziozko delitu bat salatzeko (erreforma egin aurretik, erasoa talde gisa jasandako gizataldeak baino ezin zuen salaketa aurkeztu). Hau da, gaur egun, pertsonak banaka jardun dezake (eragindako gizataldearen ordezkari gisa jardun beharrean, 2015. urtea baino lehen gertatzen zen bezala) arduradun politikoaren aurkako salaketa jartzerakoan.

Non eta nola aurkezten da salaketa bat?

Salaketa ahoz edo idatziz jar daiteke ertzain etxe batean edo egoitza judizial batean.

- Nolanahi ere, komeniko litzateke salaketa idatziz aurkeztea guardiako epaitegian.
- Dena dela, sare sozialetan egindako mehatxuen aurkako salaketei dagokienez, egilea ezezaguna bada (esate baterako, aldizkari digital bateko foroan egindako adierazpen politikoak baliatu eta, gainera, zigorgarriak diren mehatxu edo irain xenofoboak gehitzen dizkie), egokiena ertzain etxeren batera joatea da. Ohar gaitezen, Ikerketa Kriminal eta Polizia Judizialeko Unitatearen barruan, Ertzaintzak baduela arlo horretan aditutako taldea, honela deitutakoa: Informazio Teknologietako Delituen Atal Nagusia.

  Gai horri dagokionez, ikusi Ertzaintzaren webgunean ageri diren aholku batzuk:

  https://www.ertzaintza.eus/wps/portal/ertzaintza/!ut/p/c4/04_SB8K8xLLM9MSSzPy8xBz9CP0os3gXDydTo2AzN0tLE9dAdxNzc-39zAwjQL8h2VAQAb4_CEw!!/

Salaketaren prozeduraren hasieran, ezta beharrezkoa abokatuen laguntza, ezta prokuradoreen laguntza ere.

Eredu gisa, ondoan ageri da guardiako epaitegian aurkez daitekeen idazkia.

…….....……(E)KO GUARDIAKO EPAITEGIAREN EGINKIZUNAK BETETZEN DITUEN .....……(E)KO INSTRUKZIO EPAITEGIARI

…… jaunak/andreak, adinez nagusiak, …… NAN zenbakidunak, ……(e)n bizi denak, (PK……) …… kalean.

Agertzen da eta honakoa **ADIERAZTEN DU**:

Honako idazki honen bidez, SALAKETA jarri nahi dudala Prozedura Kriminalaren Legearen 259. artikuluak eta hurrengoek diotenarekin bat etorriz, …… NAN zenbakia duen eta …… helbidea daukan …… jaunaren/andrearen aurka; eta NAN zenbakia duen eta …… helbidea daukan …… jaunaren/andrearen aurka; biak adinez nagusiak dira eta salaketa ondokoetan funtsatzen da:

GERTAKARIAK

1.a …… dela eta sortu den gatazkaren ildoan, …… jaunak/andreak, …… alderdi politikoaren ordezkaritzan, ondoko adierazpenak egin zituela: …… Euskarri hauek erantsi dira (egunkariko albistea), (pantaila argazkia)…

2a. …

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Une honetan, eta geroko ebazpenaren zain, azaldutako gertaerak delitu egitatetzat jo daitezke, Zigor Kodearen 510. artikuluak ezarritakoari jarraiki.

Lehenengoa.- Kode Zibilaren 510.1 artikuluak ondokoa xedatzen du: “Norbaitzuek talde edo elkarteen aurkako berezikeria gorrotoa edo indarkeria eragiten badute arrazakeria nahiz zio antisemitengatik, edota talde nahiz elkarte horietako kideen ideologia, sinesmen, familia egoera etnia, arraza, nazio jatorri, sexu, sexu joera, gaixotasun edo elbarritasunengatik, orduan, halakoei […] zigorra ezarriko zaie, bai eta […] isuna ere”.

Bigarrena.- Kode Zibilaren 510.2 artikuluak ondokoa xedatzen du: “Zigor bera ezarriko zaie talde edo elkarteen inguruan, faltsuak direla jakinda edo egia ausartegi mespretxatuz, informazio iraingarriak hedatzen dituztenei, baldin eta informaziook horien ideologia, erlijio nahiz sinesmen, edota beren kideen etnia, arraza, nazio-jatorri, sexu, sexu-joera, gaixotasun edo elbarritasunari buruzkoak badira”.

Esandako adierazpenek mespretxua eta umilazioa eragiten diete salatzailea kide deneko taldeari eta, gainera, talde horren aurkako indarkeriazko ekintzak sorrarazten duen giroa sortzen dute.

Horregatik eta esandako guztiagatik,

EPAITEGIARI ESKATZEN DIOT honako idazki hau aurkeztutzat jo dezala, onar dezala eta SALAKETA onar dezala …… jaunaren/andrearen aurka eta …… jaunaren/andrearen aurka eta, Prozedura Kriminalaren Legeak ezarritakoari jarraiki, aurretiazko eginbideak bideratu ditzala, eta frogabide egokiak egin ditzala, behean adierazten den moduan:

1. Aurkeztutzat jo ditzala …… eta …… zenbakidun dokumentuak, eta erants bekizkie jarduketei.

2. Lekukoen informazioa:

3. Bidal bekio ofizioa (irrati, TB eta abarri), …… eguneko grabazioa igorri eta honako jarduketa hauei eransteko.

Bidezkoa delako eskatzen dut, ……(e)n, 2018ko ……aren (e)(a)n .

Zer gisan parte har dezake prozeduran pertsona salatzaileak?

- Salaketa idazkia aurkeztuta, pertsona salatzaileak, adibidez, lekuko gisa parte har dezake prozeduran.
- “Zigor arloko akzioa” deritzona egikaritu nahi badu, akusatzaile partikular gisa agertuko da prozeduran. Horretarako, salaketa idazkian bertan, Berebat bidez adieraziko da inguruabar hori.

Bigarren kasuan, abokatua eta prokuradorea behar dira.

BEREBAT DIOT: Prozedura Kriminalaren Legaren 110. artikuluak aratzen duen eskumenari jarraiki, hau da, nire salatuaren aurkako akzio zibilak eta penalak egikaritzeko eskumenari jarraiki, nire defentsan, Abokatuen Bazkuneko ……. jauna/andrea izendatu dudala nire abokatu eta ……. jauna/andrea nire prokuradore, …….. hiriko epaitegietan nire ordezkaritzan jardun dezaten.

EPAITEGIARI ESKATZEN DIOT arestian adierazitako izendapenak kontuan har ditzala, behar diren ondorioetarako. Bidezkoa delako eskatzen dut, goian adierazitako leku-egunetan.

03

HSERRI AKZIOA

EDO HERRI AKUSAZIOA

Zer da herri akusazioa?

Herri akusazioa dugu herritarren aukera alderdi akusatzaile gisa jarduteko zigor arloko prozedura batean.

Herritarrek zigor arloko akzio batean jarduteko aukera ez da Europako beste herrialdeetan onartzen; Europako gainerako herrialdeetan, Fiskaltzaren esku uzten dute delitua pertsegitzeko beharra.

Herri akzio edo akusazioaren kontzeptuak berebiziko garrantzia dauka “interes kolektiboa edo zehaztugabea” deritzona babesteko (hau da, talde edo kolektiboen balioak babesten dituztenen aurkako delituak pertsegitzeko); hortaz, delitu mota horietan, herri akusazioaren esku hartzea biderik jatorrena da taldearen interesen defentsan aritzeko, taldea osatzen duten norbanakoez gaindikoak baitira.

Nork egikaritu dezake herri akusazioa?

Hasteko, norbanako batek edo talde batek egikaritu dezake herri akusazioa. Iraina pairatu duen taldeari lotutako erakunde edo antolakunde batek egikaritzea dugu ohikoena.

Zer alde dago herri akusazioaren eta akusazio partikularraren artean?

Herri akusazioa dugu delituak zuzenean laidotu ez duen pertsona batek hasarazitako akzio penala; hala, delituak zuzenean laidotutako pertsonak akzio penala hasarazten duenean, akusazio partikular deritzogu akzioari, aurreko tresnan ikusi dugun bezala.

Nola egikaritzen da herri akusazioa?

Herri akusazioa kereila bidez egikaritzen da. Kereilari dagokion tresnan (5. fitxan), kereila jartzeko eskakizunak eta modua azalduko ditugu.

Ohar gaitezen, jurisprudentziak badioela prozedura hasita egonez gero (esate baterako, akusazio partikular batek hasi duelako, ofiziozko fiskalak hasi duelako edo beste herri akusazio batek hasi duelako), ez dela kereila bidez pertsonatu behar hizpide darabilgun akusazio honetan. Nolanahi ere, kereila jartzekotan, egitateak kalifikatu baino lehen egin behar da pertsonatzea (hau da, pertsonatutako alderdi guztiek egitateak kalifikatzeko idazkiak aurkeztu eta zigor egokia eskatu baino lehen).

Herri akusazio gisako pertsonatzeetan, aintzat hartu behar da fidantza eskatu daitekeela. Fidantza horren xedea dugu prozedurak sorrarazitako kostu edo gastuei erantzutea. Hala eta guzti ere, askotan, fidantzaren helburua pertsonatzea ekiditea da. Ildo horretan, gogorarazi behar dugu Prozedura Kriminalari buruzko Legearen 281. artikuluak fidantza eskatzeko eginbeharretik salbuesten dituela “biktimen elkarteak eta legeak biktimen eskubideak defendatzeko legezkotasuna aitortzen dien pertsona juridikoak, betiere biktimak berak akzio penala egikaritzea berariaz baimentzen badu”. Beraz, herri akusazio gisa pertsonatzeko idazkian, komeni da fidantza eskatu behar ez dela beren-beregi adieraztea.

Ondoan, pertsonatzeko idazkiaren eredua jaso dugu.

……(E)KO … INSTRUKZIO EPAITEGIARI

Aurretiazko eginbideak/ …..... zk.

…… jaunak/andreak, epaitegietako prokuradoreak, …… erakundearen izen eta ordezkaritzan, **HERRI AKUSAZIO** gisa dihardudala, …… abokatu jaun/andrearen laguntzaz (horrela egiaztatu du ahalorde eskrituraren bidez, kopia ziurtatu bidez erantsita, jatorrizkoa itzultzeko (1. dokumentua), epaitegiaren aurrean agertu eta, Zuzenbidean bidezkoen den moduan, DIOT:

LEHENENGOA: Idazki honen bidez, **PERTSONATZEKO IDAZKIA** aurkeztu nahi dudala epaitegi horretan izapidetzen ari diren eta goian aipaturiko aurretiazko eginbideak direla eta.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 7.3 artikuluak auzitegi eta epaitegiei agintzen die legezko eskubide eta interesak, norbanakoenak nahiz taldeenak, babes ditzala eta eragindako korporazio, elkarte eta taldeen nahiz horiek defendatzeko eta sustatzeko legezko ahalmena dutenen zilegitasuna aitortzen du.

BIGARRENA: pertsonatzeko zioa honako arrazoi hauetan oinarritzen dela:

1. …… antolakundearen helburuetako bat …… taldeko kideen eskubideen defentsa da.

2. Erakundearen estatutuetan (horien kopia erantsi zaio idazkiari, 2. Dokumentu gisa), erakundearen helburuak azaltzen dira, besteak beste…

HIRUGARRENA: agerikoa da aztergai darabilgun kasua, ustez, Zigor Kodearen 510 artikuluak xedatzen dituen gorrotoaren diskurtsoaren ziozko delitutzat jo daitekeela.

LAUGARRENA: Pertsonatzeko eskaera hau egin da kereila jartzeko beharrik izan gabe, ……(e)n hasitako prozedura baita eta, beraz, nahikoa zehaztuta dago delituzko zantzua agertzen duten gertaerei dagokienez, gure auzitegietako doktrina eta jurisprudentziari jarraiki.

BOSGARRENA: alderdi honen iritziz, ez litzateke fidantzarik eratu beharko, ez baitago epaiketaren emaitzari erantzun beharreko arriskurik; hortaz, berezko helbururik bete behar ez duenez, jurisprudentziak ez du beharrezkotzat jotzen (Auzitegi Gorenaren 1992ko martxoaren 12ko epai guztietan).

Beste alde batetik, Prozedura Kriminalaren Legearen 281. artikuluak dioenez, fidantza eratzeaz salbuetsita daude “Biktimen elkarteak eta, biktimen eskubideak defendatzeko xedez, legeak legezko ahalmena aitortzen dien pertsona juridikoak, betiere, biktimak berak akzio penala egikaritzea berariaz baimentzen badu”.

Epaitegi horrek beste irizpiderik izango balu, berariaz eskainiko genuke honako kasu honi ondoen doakion fidantza.

Aurreko guztia dela eta,

AUZITEGIARI ESKATZEN DIOT, honako idazki hau aurktutzat jo dezala, onar dezala eta sinatzen duen prokuradurea pertsonatutzat eta alderditzat jo dezala, arestian esandako antolakundearen ordezkaritzan, HERRI AKUSAZIO gisa, eta halakotzat har dezala ondoko eginbideetan, legeak arautzen duen eran eta moduan.

Bidezkoa delako eskatzen dut, ……(e)n, 2018ko ……aren (e)(a)n.

04

AUZI ESTRATEGIKOA

Zer da auzi estrategikoa?

Auzi estrategikoa (AE), inpaktu auzia edo interes publikoko auzia dugu kasu enblematiko bat epai bidean jarri edo judizializatzea. Ondokoan datza: gizarte inpaktu handia daukan kasu bat aukeratu, haren ezaugarriek pertsona eta talde askori eragiten dien aztertu eta, horrela bada, auzibideratzea.

Zertarako hasten dira auzi estrategikoak?

Kasu esanguratsu baten auziaren bitartez, helburu batzuk lortu nahi dira: gizakien eskubideen arloko irizpide judizial murriztaileak aldatzea, eskubideen egikaritze askea eragozten duten legeak, araudiak edo administrazio jardunak aldatzea eta, oro har, giza eskubideak babesteko estandarrak handitzea.

Diskurtso arriskutsu eta xenofoboaren gaiari gagozkiola, AEren helburua da, oro har, barruko bide judizial guztiak agortzea auzia Giza Eskubideen Europako Auzitegiraino eramateko edo, bestela, Nazio Batzuen Giza Eskubideen Kontseiluraino (azkena gidaliburu honetan bertan aztertuko dugu aurrerago, berariazko tresna gisa aztertu ere).

Zer alderdi hartu behar da kontuan auzi estrategikoa hasi baino lehen?

Hainbat alderdi hartu behar dira kontuan.

- Hasteko eta behin, oso argi eduki behar da auzi estrategikoa zertarako hasten den. Hizpide darabilgun arloan, arrazoietako bat litzateke Giza Eskubideen Europako Auzitegiak epaia ematea ordezkari politiko jakin baten diskurtso xenofoboa dela eta, argi utzita oso arriskutsua izan daitekeela diskurtso hori hauteskunde kanpaina baten barruan eman duenean.
- Auziaren helburua argitu ondoren, ongi hautatu behar da kasua: Froga osagai argiak, dokumentuak, grabazioak…
- Hirugarrenez, auzibidetara eramaten den delitua pairatzen duen biktimak erabiliko den estrategiaren berri izan behar du, judizioz kanpoko konponbiderik onartuko ez duelako konpromisoa hartu behar du, prozedura osoan lokalizatzeko moduan egongo dela adostu eta abar. Auzi estrategikoak prozesu luzeak dira, hainbat urtetakoak.

Nola finantza daiteke AE baten kostu handia?

Baliabide ekonomikoak jartzen dituen erakunde baten babesa behar du auzi estrategikoak, auzia zenbait maila judizialetan garatzen delako.

Auzia finantzatzeko iturriak ondokoak izan daitezke:

- GKE, berezko baliabideak dituelako.
- Kanpoko finantzaketa.

Bigarren aukeran, pro-bonua deiturikoa azpimarratu behar dugu. Pro-bonuari esker, abokatuen bulego handiek abokatuen laguntza ematen diete doan GKEei, bulego horien gizarte erantzukizuneko politikari atxikita. Bulego horietako batzuek baliabide horren berri ere ematen dute:

- http://www.garrigues.com/es_ES/commitment/garrigues-y-la-sociedad/trabajo-pro-bono
- https://www.cuatrecasas.com//es/firma/probono.html
- http://www.fundacionprofesoruria.org/proyectos/pro-bono.html

Oro har, abokatuen bulegoak jartzen dira harremanetan GKEekin, azkenei laguntzeko, baina alderantziz ere gerta daiteke, hau da, GKE batek abokatuen bulego handi batera jotzea kasu jakin bat auzi estrategiko gisa lantzeko.

Nola zehazten da AE baten estrategia?

Kasua zehaztu eta zein antolakundek edo antolakunde taldek kudeatuko duten erabaki eta gero, zein instantzia judizialetaraino heldu nahi den ebatzita, oso garrantzitsua da estrategia lantzea. Auzi estrategiko batek inpaktua sorrarazi behar du gizartean, arauak aldatzeko helburuz edo jendea arazo jakin batez jabetzeko helburuz. Horrek guztiak hainbat eragile behar ditu: hezkuntza-arlokoak, hedabideak, sare sozialak... Horrez gain, komunikazio estrategia landu behar da auzi estrategikoaren inguruan, eta estrategia hori auzibideratu behar den kasua bezain garrantzitsua da.

05

KALUMNIA ETA/EDO IRAINEN ZIOZKO

Zer da kereila?

Kereila deritzona iraina zuzenean pairatu duen pertsonak bakarrik jar dezakeen salaketa da.

Zertan dira berdinak eta desberdinak kereilak eta salaketak?

Bai kereilek, bai salaketek, balio dute ustezko delitua dakarten egintza jakin batzuen berri agintariei jakinarazteko.Bien arteko aldea, berriz, ondokoa da: kereila jarriz gero (salaketa jartzeko beharrezkoak diren eskakizunez bestelakoak bete behar izateaz gain), zigor arloko akzioa egikarituko da. Hau da, kereila jartzailea alderdi akusatzailea izango da eta akusazio partikularra egikarituko du.

Zer egin behar da kereila jartzeko?

Zigor Kodeak ezarritakoari jarraiki, delitu jakin batzuk baino ezin dira kereila bidez pertsegitu. Delitu mota horien adibide ohikoenak irainak eta kalumniak ditugu.

Beraz, kereila jartzeko aukera dago iraina pairatu duen pertsonak irainak edo kalumniak nozitu dituela salatu nahi duenean. Hau da, ordezkari politiko batek adierazpen xenofoboak jendaurrean esaten baditu eta talde baten kontra esan beharrean, pertsona jakin baten kontra esaten baditu, pertsona horrek irain edo kalumnien ziozko kereila kriminala aurkeztea izango du ordezkari horren aurka.

Zer alde dago kalumniaren eta irainaren artean?

Zigor Kodearen 205. artikuluak dioenari jarraiki kalumnia dugu beste bati delitu baten egintza egoztea, faltsua dela jakinda edo edota egia ausartegi mespretxatuz. Bestela esanda, kalumnia egitea hauxe da: “nik delitua egin duzulako akusazioa egin dut zure kontra, baina, egiatan, zuk ez duzu delitu hori egin”. Akusatzailea behartuta dago delitua egin izana frogatzera.

Irain delitua, berriz, honela definitzen da: “beste pertsona baten duintasuna lohitzen duen ekintza edo adierazpenak egitea, pertsona horren ospeari kalte eginda edo beraren estimuaren kontrako atentatua eginda. Irainak bakar-bakarrik delitu izango dira, euren izaera, ondorio eta inguruabarren arabera, jendeak larritzat hartzen dituenean” (ZKren 208. artikulua). Horrek esan nahi du, 2015. urteko erreforma egin osteko Zigor Kode berrian, irain arinak ez direla delitu.

Zein da kereila jartzeko prozedura?

Kereilak abokatua eta prokuradorea behar ditu.

Kereila jartzaileak notario ahala egiletsi behar du izendatutako abokatu eta prokuradorearen alde.

Prozedura hasiko da auzitegian kereila idazkia aurkeztuta (idazkian, lehen urrats gisa, adiskidetzeko ekitaldia eskatu behar da.

Idazki horren edukian, ondoko alderdiak jaso behar dira:

- Zein epaile edo auzitegiren aurrean aurkeztu den adierazi behar da.
- Kereila jartzailearen izena, abizenak eta helbidea adierazi behar dira.
- Kereilaren xede den pertsonaren izen-abizenak eta helbidea adierazi behar dira edo, horiek jakin ezean, pertsona horren inguruan ezagutzen diren datu guztiak.
- Gertaeraren inguruabarrak, kereila jartzaileak ezagutzen dituen leku-denborazko inguruabar guztiak zehaztuta.
- Gertaera egiaztatzeko gauzatu beharreko eginbideak.
- Kereila onartzeko proposatutako eginbideak gauzatzeko eta ustezko errudunaren egoera pertsonalaz erabakitzeko eskatu behar da; era berean, hala badagokio, balizko erantzukizun zibila edo kalte-ordaina ziurtatzeko eskatu behar da.

Sare sozialen bidez egiten diren irain edo kalumnia anonimoei buruzko oharpen berariazkoa

Irainak edo kalumniak sare sozialen bidez zabaltzen badira eta egilea zein den ez badakigu, kereila jarri eta adiskidetzeko ekitaldia eskatu baino lehen, beste idazki bat bidali behar da Guardiako Epaitegira. (Gogora dezagun, azken tresnan esan dugun bezala, egilea pertsona anonimo edo ezezaguna izango litzatekeela eta, esaterako, egunkari digital batean argitaratutako adierazpen politiko batzuen zabalkundea egiten duela eta, gainera, mehatxu edo irain xenofobo zigorgarriz hornitzen dituela adierazpenak.Guardiako epaitegira helarazitako idazkian, jakinarazi behar da kereila jarriko dela pertsona ezezagun batzuen aurka.

Era berean, idazki horretan eskatu behar da epaitegia Ertzaintzaren Informazio Teknologietako Delituen Atal Nagusiarekin harremanetan jar dadin, egintza ikertu eta ordenagailu igorlearen identifikazioa jakin dezan, IP zenbakia lortuta.

Ohar gaitezen 25/2007 Legeak, Komunikazio elektronikoetako eta komunikazio sare publikoetako datuak gordetzeari buruzkoak, ezartzen duenari jarraiki, ikerketa soilik abiatu daiteke delitu larriak pertsegitzeko, hau da, 5 urtetik gorako zigorra jaso dezaketen delituak pertsegitzeko. Hala eta guztiz ere, lege horren aplikazioa, 5 urteko irizpidea malgutu egiten da. Hau da, delituaren garrantzia aintzat har daiteke, delitu horri dagokion zigorra (urtetan zenbatuta) horrenbeste kontuan hartu gabe, IP helbide jakiteko eskaeran.

Oharpen horrek berebiziko garrantzia dauka aintzat hartzen badugu Zigor Kodearen 510. artikuluak (gorrotoaren diskurtsoa jasotzen duena) ezartzen duen zigorrik handiena 4 urtekoa dela; horrek esan nahi du, agi denez, gorrotoaren diskurtsoaren delituagatik zigortutako pertsona bati ezin diotela 4 urtetik gorako zigorrik ezarri.

06

ESLEri GERTAKARIAREN BERRI EMATEA

ERAKUNDE DEMOKRATIKO ETA GIZA ESKUBIDEEN BULEGOAREN –ODIHR– BIDEZ

Zer da ESLE?

ESLE Europako Segurtasun eta Lankidetzako Erakundea da. Europako, Asia Erdialdeko eta Ipar Amerikako 57 estatuk osatzen dute erakunde hori.

ESLEren barruan, zein bulegok kudeatzen ditu gorrotoaren delituak?

ESLE osatzen duten erakundeen artean, Erakunde Demokratikoen eta Giza Eskubideen Bulegoak (ODIHR, ingelesez) demokrazia, Zuzenbidearen estatua, giza eskubideak, tolerantzia eta diskriminazio eza sustatzen ditu.

ODIHR delakoak berariazko atala dauka gorroto delituak salatzeko honako helbide honetan:

http://hatecrime.osce.org/

Nork jo dezake ODIHR erakundera laguntza eske gorrotoaren diskurtsoaren ziozko kasu bat dela eta?

Gizarte Zibilaren Erakundeek (GZE) jo dezakete ODIHR erakundera.

Horretarako, hatecrime.osce.org webgunea erabiliz, esandako erakunde horiek idatzizko txostena bidali behar dute leku jakin batean jazo diren gertakari batzuen berri ESLEri jakinarazteko, dena delako gizarte zibilaren erakundeak jakin baitu halakoetan gorrotoaren diskurtsoaren ziozko delitua gertatu ahal izan dela.

ODIHR erakundeari bidalitako informazioan, gutxienez, ondokoak jaso behar dira: data, egindako delitua, gertakaria sorrarazi zuten aurreiritziak, gertakariaren azalpen laburra, egilea edo egileak, poliziak esku hartu zuen eta/edo agintarien erantzuna nolakoa izan zen.

Informazioa honako posta helbide honetara bidali behar da:

tndinfo@odihr.pl.

Zer egiten du ODIHR erakundeak txostena jasotakoan?

ODIHRrek gizarte zibilaren erakundeek bidalitako txostenak aztertu eta informazio esanguratsua argitaratzen du, “gertakaritzat” sailkatuta. (“Gertakariak izendatzeko arrazoia dugu GZEei atxikitako mota guztietako antolakundeek bidaltzen dituzten txostenetan egintza ugari jasotzen direla; ODIHRrek, aldiz, ezin du egiaztatu GZE horiek guztiek bidalitako gertakariek baldintza guztiak betetzen ote dituzten delitu egitatetzat jotzeko. Dena dela, “gertakaritzat” jotzen direnez, betiere ez datoz bat, edo ez dira zertan erkagarri izan, beste erakunde edo ministerio batzuek, hala nola Barne Ministerioak Espainiari dagokionez, era ofizialean erregistratzen dituen delituekin. Ministerioak urtero-urtero argitaratzen ditu gorroto delituei buruzko datu ofizialak).

Hori esanda, ODIHRrek gizarte zibilaren erakundeek bidalitako txosten guztiak ESLEren txosten batean biltzen ditu eta jendaurrean argitaratzen ditu, Intolerantziaren aurkako Nazioarteko Egunean argitaratu ere, hots, azaroaren 16an. Txostenak eragin esanguratsua dauka nazioarteko hedabideetan eta lotsaz “gorritu” dezake (lan honetan erabili dugun kasu hipotetikoan), hirian bizi diren musulmanak direla eta, “besoak gurutzaturik ezin gera gaitezke” esan zuen politikari hori.

07

HOBEKUNTZA TXOSTENA ADDBren NAZIOARTEKO KONTSEILUARI

Zer da Hitzarmena? Zer batzordea?

Hitzarmena dugu nazioarteko erakundeek, hala nola Nazio Batuek, hartutako abiaburu edo printzipioen multzoa. Hitzarmenari jarraiki, erakunde horiek guztiek berresten dute printzipioak beteko direla hitzarmena sinatzen duten herrialdeetan.

Batzordea, berriz, organo independentea da, parte hartzen duen estatu bakoitzak hitzarmenean jasotako manuak betetzen direla kontrolatu eta ikuskatzeko sortutakoa.

Zer hitzarmen eta zer batzorde dira eskumendunak gorrotoaren diskurtsoei buruzko auziak jorratzeko?

Nazio Batuen Batzar Nagusiak (NBBN) Arraza Diskriminazioaren era guztiak Desagerrarazteko Nazioarteko Hitzarmena onartu zuen 1965. urtean, eta 1969an hasi zen indarrean.

Arraza Diskriminazioa Desagerrarazteko Batzordea (ADDB) organo independente gisa eratu zen Hitzarmena betetzen dela ikuskatzeko herrialde sinatzaileetan.

Batzordea urtean birritan biltzen da Genevan.

Nola ebaluatzen eta ikuskatzen ditu estatuak ADDBk?

Batzordearen tresna nagusia “estatuko txostena” da. Honela prestatzen dira txostenak:

Hasteko, parte hartzen duen estatu bakoitzak, hitzarmena sinatu duenez gero, batzordearen kontrol eta ebaluazioaren eraginpean jartzeko eginbeharra dauka, Batzordeak aldiro-aldiro deituko dio Genevara joateko eta, bertan, estatuak kontuak emango ditu hitzarmenean ezarritako betebeharren betetze mailaren gainean.

ADDBk agerraldien egitaraua prestatu ohi du estatu guztientzat, urtebetera edo bi urtera iragarrita.

Ebaluazioan, estatu sinatzaile bakoitzak arraza diskriminazioaren arloko jarduketa eta betetzearen inguruko txostena prestatu beharko du. “Estatuko txostena” da. Batzordeak errelatorea izendatuko du txostena ebaluatzeko.

Txostena Genevan aztertuko da eta, horretarako, ADDBk herrialde sinatzaileei eskatuko die estatu horretako ordezkarien taldea bidal dezatela ADDBren bilkuretan parte har dezaten, “elkarrizketa elkarreragilea” ahalbidetzeko.

Nola jakinarazi diezaioke pertsona batek edo pertsona talde batek ADDBri giza eskubideren bat urratu dela herrialde jakin batean?

Hitzarmena sinatu duen herrialde batek hitzarmenean ageri den eskubideren bat urratu diotela baieztatzen duten pertsonek edo pertsona taldeek, barruko baliabide guztiak agortu ondoren, idatzizko komunikazioa bidali ahal diote batzordeari, batzordeak gertakaria azter dezan estatuak bidalitako txostenarekin batera.

Komunikazio horretan, pertsonek edo pertsona taldeek batzordeari jakinarazi nahi dioten egitatea edo diskurtsoa deskribatu dezakete.

Komunikazioa onartzen bada, ADDBk horren gaineko iritzia emango du, baita iradokizunak eta gomendioak ere.

Geroago, ADDBk gomendio horiek helaraziko dizkie pertsona edo talde interesdunari eta estatu egokiari (azkenari isilpekotasunez bidaliko dio komunikazioa, urraketa gertatu dela dioen pertsonaren edo taldearen identitatearen berri eman gabe).

Sozietate zibilak txosten alternatiboak (hobekuntza txostenak) bidal diezazkioke ADDBri politikarien diskurtso xenofoboak salatzeko?

Oro har, gizarte zibilak hainbat modutan lagun diezaioke batzordeari haren eginkizunetan.

- Estatuek txostena aurkezteko aldiaren barruan:
  - informazioa bidal dezake dena delako estatuaren txostena aztertu baino lehen;
  - Estatuko txostena prestatzen parte har dezake;
  - gaien zerrenda prestatzeko informazioa eman dezake;
  - hobekuntza txostena prestatu eta aurkez dezake;
  - erantzunak bidal ditzake gaien zerrenda aztertuta.
- Batzordearen aurreko saioen aldian:
  - informazio saio ez-formala antola dezake batzordekideentzat, eta behatzailea izan daiteke batzordearen bilkuretan;
  - banako komunikazioak aurkez ditzake, 14. artikuluak dioenari jarraiki;
  - informazioa bidal diezaioke batzordeari edo
  - gaikako eztabaidetan parte har dezake.

Orokorrean, txosten alternatiboak (*hobekuntza* txosten deritzenak) aurkeztea gomendatzen da, dena delako estatuak estatuko txostena bidali ondoren, baina ADDBk aztertu baino bi aste lehenago. Idazkaritzara bidali behar dira txostenak.

Batzordearen Idazkaritzaren helbidea eta harremanetarako bideak:

Arraza Diskriminazioa Desagerrarazteko Batzordearen (ADDB) Idazkaritza

Giza Eskubideen Hitzarmenen Alorra,

Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren Bulegoa

Palais Wilson-52, rue des Pâquis Geneva, Suitza

Webgunea (gaztelaniaz):

http://www.ohchr.org/SP/HRBodies/CERD/Pages/CERDIntro.aspx

08

SALAKETA NAZIO BATUEN GIZA ESKUBIDEEN KONTSEILUAREN AURREAN

Zer da Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseilua?

Giza Eskubideen Kontseilua gobernuen arteko erakundea da, Nazio Batuen sistemaren barrukoa. 47 estatuk osatzen dute eta giza eskubidek sustatzen eta babesten dituzte mundu osoan.

Nork jar dezake salaketa Giza Eskubideen Kontseiluaren aurrean?

Batzordeak darabilen salaketak egiteko prozedura norbanakoek eta GKEek balia dezakete, aholku estatusa izan gabe ere, giza eskubideen urraketak salatu nahi badituzte.

Baliteke salaketa anonimoen izapidetzea ez onartzea.

Zer egin behar da salaketa jartzeko?

Kontseiluaren webgunean, salaketa jartzeko txantiloia ageri da.

http://www.ohchr.org/EN/HRBodies/HRC/ComplaintProcedure/Pages/HRCComplaintProcedureIndex.aspx

Salaketak egiteko prozedurak idatziz aurkeztutako salaketak baino ez ditu izapidetuko. Komeni da salaketaren zabalera, gehienez ere, 10-15 orrialdetakoa izatea; dena dela, informazio osagarria txertatu ahalko da geroko faseetan. Beharbada, salaketa anonimoen izapidetzea onartuko ez denez, funtsezkoa da. Salaketa egiten duten norbanakoen identifikazioa adieraztea edo zein erakunderen ordezkaritzan jarduten duten adieraztea komunikazioan (informazio hori eskatzen bada, isilpekoa izango da).

Salaketa Prozeduraren bidez aurkezten diren salketetan, egitate esanguratsuenak azaldu behar dira, ahalik eta zehatzen, eta ustezko biktimen izenak, datak, lekuak era beste frogabide batzuk aipatu behar dira. Hala berean, salaketaren arrazoia eta ustez urratu diren eskubideak zein diren adierazi beharko da. Gaizki arrazoitutako komunikazioak edo komunikazio anonimoak baztertu egingo dira.

Kontseiluaren Salaketa Prozedura erabiliz aurkezten diren komunikazioak honako helbide honetara helarazi behar dira:

Human Rights Council and Treaties Division Complaint Procedure

OHCHR-UNOG 1211 Geneva 10,

Switzerland.

E-posta: CP@ohchr.org

Kontseiluak salaketa onartzen badu (lehenbizi, Komunikazioen lantaldeak aztertu eta salaketaren izapidetzea onartzen duenetz erabakiko du), dagokion estatuari jakinaraziko dio salaketaren berri; salaketak dakarren gaiari buruzko informazioa eskatuko zaio eta hiru hilabeteko epea emango zaio eskaerari erantzuteko.

Orduan, Kontseiluaren beste lantalde batek (Gertaeren lantaldeak) salaketa aztertuko du, bai eta estatuak emandako erantzuna ere. Horiek aztertuta, salaketan jorratutako gertaeraren gaineko gomendioa egingo dio Giza Eskubideen Kontseiluari (ebazpen zirriborro gisa edo erabaki zirriborro gisa). Kontseiluak isilpekotasunez landuko du lantaldearen agiria, besterik erabaki ezean.

Giza Eskubideen Kontseiluak honako neurri hauetako bat hartuko du:

- Frogabide gehiagorik beharrezkoa ez bada, gertaera ikertzen ez jarraitzea.
- Gertaera ikertzen jarraitzea, eta tartean dagoen estatuari informazio osagarria eskatzea.
- Gertaera ikertzen jarraitzea, eta aditu independentea izendatzea, gertaeraren jarraipena egin eta Kontseiluari horren berri jakinaraz diezaion.
- Isilpeko salaketaren prozedura bidez ikertzen jarraitzeari uztea eta era publikoan ikertzen jarraitzea.
- Lantaldeari tartean dagoen estatuari lagundu diezaion gomendatzea.

Noiz aurkez daiteke salaketa bat Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluaren aurrean?

Salaketak edozein unetan aurkez daitezke. Nolanahi ere den, barruko bide guztiak agortu behar dira aurretiaz. Horrek esan nahi du, Nazio Batzuen Giza Eskubideen Kontseilura jo orduko, salaketak iritsi behar izan duela salaketa jartzaileak jatorria duen herrialdeko Konstituzio Auzitegiraino. Beraz, honako hau tresna egokia da auzi estrategikoa bideratzeko.

Oharra

Salaketa jartzeko prozedura luze-luzea izan daiteke eta, gainera, salaketa jartzaileak ez du zuzeneko erantzunik jasoko, prozeduraren isilpekotasuna dela eta (gogorarazi beharra dago, isilpekotasuna babeste aldera, estatuak ez duela inoiz ere jakingo bere aurkako salaketa nork jarri duen), eta horrek frustrazioa ekar diezaieke biktimei edo senideei.

09

ERREKLAMAZIOA ESTATUKO KONTSEILUAREN EDO AUTONOMIAKO *ERABEREAN* SAREAREN AURREAN

Europako estatuak behartuta al daude diskriminazioaren aurkako erakunde publikoak izatera?

2000/43 EE Zuzentarauak, tratu berdintasunari eta diskriminazio ezari buruzkoak, 13. artikuluan, ezartzen duenari jarraiki, estatu kide bakoitzak tratu berdintasuna sustatzeko erakunde bat edo gehiago eratu behar ditu.

Nola betetzen du Espainiako estatuak beharkizun hori?

Beharkizun horri heltzeko, 2004. urtean, Espainiako estatuak Pertsonen tratu berdintasuna eta, arraza edo etnia arrazoiengatik, diskriminaziorik eza sustatzeko Kontseilua sortu zuen.

Kontseilu horren eginkizun nagusietako bat dugu diskriminazioa pairatutako biktimei laguntza ematea eta, horretarako, hirugarren sektoreko erakundeak artatzeko hainbat zentro dauzka, antenen sarea eratu dutela. Probintzia edo lurralde bakoitzeko antenei buruzko informazioa eta harremanetarako bideak webgune honetan ageri dira:

http://www.igualdadynodiscriminacion.msssi.es/redOficinas/portada/home.htm

Zer zerbitzu dago autonomia erkidegoetan eta udalerrietan diskriminazioa pairatu duten biktimei laguntzeko?

Autonomia Erkidego batzuetan, herritarrentzako arreta zerbitzuak abian jarri dira diskriminazioaren arloko salaketei erantzuteko. Horrela, esate baterako, 2017. urtean, Diskriminazioaren aurkako Aragoiko Bulegoa hasi zen lanean.

http://www.aragon.es/DepartamentosOrganismosPublicos/Departamentos/CiudadaniaDerechosSociales/AreasTematicas/CDS_Igualdad-e-Integraci%C3%B3n-Social/Igualdad/ci.txt_oficina_discriminaci%C3%B3n.detalleDepartamento?channelSelected=0

Udalerrietan, Bartzelonako Udaleko Diskriminazioaren aurkako Bulegoa aitzindaria da.

http://ajuntament.barcelona.cat/oficina-no-discriminacio/es

Bestetik, Sabadelleko Udalaren Giza Eskubideen Bulegoak, besteak beste, arrazismoari, generoari eta LGTBI kolektiboari lotutako gertaerei erantzuten die.

http://www.sabadell.cat/ca/odc

Euskal Autonomia Erkidegoko zein sarek artatuko luke diskurtso politiko xenofobo batek eragindako diskriminazioaren ziozko gertaera bat?

Gure ingurune hurbilean, Eusko Jaurlaritzak sortutako ERABEREAN sarea balia daiteke Sare hori 2014an sortu zen eta hamaika entitatek (Aldarte, CEAR Euskadi, Gurutze Gorria, Gao Lacho Drom, CITE-CC.OO Bizkaia, Errespetuz, Kale Dor Kayiko, Nevipen, AGIFUGI, Gehitu eta SOS Racismo Gipuzkoa) osatzen dute euskal erkidegoko hiru lurraldeetan.

Estatuko kontseiluaren menpeko antenetan ez bezala, Eraberean sarearen bidez, diskriminazio ekintzaren konponketa kasua auzitara eramanda bideratu daiteke. Horrez gain, arestian deskribatu ditugun gainerako zerbitzuen aldean, Eraberean sarek hiru arlo lantzen ditu (etorkinak, ijitoak eta LGTBI kolektiboak) eta, horri esker, diskriminazio anitzeko kasuak kudeatzen ditu.

Nola eska daiteke Eraberean sarearen laguntza?

Sareak eskaintzen duen laguntza antenen bidez eskatu behar da. Esan nahi da, Eraberean osatzen duten elkarte eta antolakundeek laguntza ematen diete antolakunderen baten egoitzara diskriminazio arloko gai baten inguruko aholkularitza ese datozenei.

Aholkularitza eta laguntza eskatzeko, interesdunek antolakundeekiko harremanetan jarri behar dute, ondoko bideak erabiliz:

ARABAN

- CEAR Euskadi (945 266 805) era.berean@cear-euskadi.org
- Aldarte (945 257 077) aldarte@aldarte.org
- Cruz Roja (945 222 222) paisvasco@cruzroja.es
- Gao Lacho Drom (945 225 039) gao@gaolacho.com

BIZKAIAN

- CITE-CCOO Bizkaia (944 243 424) citebizkaia@euskadi.ccoo.es
- Errespetuz (675 459 317) errespetuz@hotmail.com
- Kale Dor Kayiko (691 674 414) eraberean@kaledorkayiko.org
- Nevipen (946 526 989) nevipen@nevipen.org

GIPUZKOAN

- SOS Racismo (943 321 811) eraberean@mugak.org
- AGIFUGI (943 248 086) asociacion@agifugi.org / eraberean@agifugi.org
- Gehitu (943 451 722) infasis@gehitu.org / info@gehitu.org

Arreta aurrez aurre, telefono bidez edo posta elektronikoaren bidez eskaintzen zaie pertsonei nahiz taldeei.

Eraberean sareak, funtsean, arlo pribatuan sortzen diren gertaeretan dihardu. Sareak hedatu dituen 11 elkarteei “antena” deritzegu berebiziko eginkizuna betetzen dutelako diskriminaziozko gertaerak antzematen.

10

KEXEN POSTONTZIA ETA ALDERDI POLITIKOEN DIZIPLINA BATZORDEA

Alderdi politikoek ere aurre egin behar diote gorrotoaren diskurtso zigorgarri, murrizgarri eta iraingarriari, baldin eta alderdi politiko bateko ordezkariren batek halako mezuak zabaltzen baditu alderdiaren izenean.

Diskurtso mota horren kontrako erantzuna Diziplina Batzordeen bitartez eta alderdi politikoen herritarrentzako postontzien bitartez bideratzen da.

Zer dira Diziplina Batzordeak?

Herrialdeko esparru politikoan jarduten duten alderdi politiko guztien (Alderdi Popularra, PSOE, EAJ, Podemos…) estatutuetan jasotzen da batzorde horren sorrera eta osaera.

Kontrol organotzat erabiltzen dira eta berariaz sortzen dira militante eta jarraitzaileen inguruko arazoak konpontzeko.

Nola jar daitezke harremanetan herritarrak alderdi politikoekin?

Salaketa alderdi politikoei zuzenean egin nahi badiegu, alderdiek herritarren esku jartzen dituzten komunikabideak erabiliz bidal ditzakegu.

Jarraian, komunikabide horien berri ematen da, alderdi politikoen alfabetoaren hurrenkeraren arabera:

CIUDADANOS alderdiaren webgunean (https://www.ciudadanos-cs.org/contacto), helbide elektroniko bat agertzen da herritarrek iradokizunak, kexak edo salaketak egin ditzaten.

- ARABA: Gasteiz hiribidea, 73, 1. sol. C.
  01009 Gasteiz. Tel.: 945 107 004
- BIZKAIA: Getxo https://twitter.com/csgetxo
- GIPUZKOA: https://www.facebook.com/CsDonostia

EH BILDU alderdiak ere harremanetarako helbide elektronikoa ere eskaintzen du webgunean: web@ehbildu.eus. Herritarrek posta elektroniko horretara idatz dezakete proposamenak, erreklamazioak edo salaketak egiteko, alderdiko ordezkari batek emandako gorrotoaren diskurtso edo diskurtso iraingarri baten zioz haserretu bada. Honakoak dira harremanetarako bideak, Sorturen egoitzen bidez:

- GASTEIZ: San Pedro pasealekua 1. 01001 PK.
- BILBO: Rodríguez Arias 43, solairuartekoa. 48011 PK
- DONOSTIA: Zuatzu Enpresa Parkea
  Easo eraikina 4, beheko sol. 20018 PK
  Tel.: 943 265 982 - 682 593 071

EAJ-PNV alderdiak posta elektronikoa eskaintzen du webgunean herritarrek iradokizunak edo salaketak bidal ditzaten:

https://www.eaj-pnv.eus/esp/contacto.php

- ARABA BURU BATZAR: Posta 4.
  01001 Gasteiz. Tel.: 945 011 600
- BIZKAI BURU BATZAR: Ibáñez de Bilbao 16.
  48001 Bilbo. Tel.: 944 039 400
- GIPUZKO BURU BATZAR: Pinu bidea 20.
  20009 Donostia. Tel.: 943 118 888

PODEMOS AHAL DUGU EUSKADI alderdiak ere harremanetarako posta elektronikoa eskaintzen du webgunean:

https://euskadi.podemos.info/contacto/

- BILBO: Ibañez de Bilbao 2, beheko sol.
  48001 Tlf.: 688 854 611
- DONOSTIA: Bizkaia pasealekua 16, beheko sol.
- GASTEIZ: Manuel Iradier 40, beheko sol. 01005
  Tel.: 945 774 092

PP alderdiak Herritarrentzako Arreta Bulegoa (HAZ) dauka bere egoitza nazionalean, eta bertara dei daiteke 900 101 446 doako telefonoa erabiliz edo 915577300 telefonoa erabiliz. Posta elektronikoa ondokoa da: atencion2@pp.es. Salaketa EAEko Alderdi Popularrera bildatzeko, webgunean eskaintzen den harremanetarako bidea erabil daitezke:

http://www.ppvasco.com/contacto/

Beste helbide batzuk ondokoak dira:

- • GASTEIZ: Olagibel 2, 1. Sol.. 01001
  Tel.: 945 230 600 Fax: 945 143 252
  E-posta: regpv@pp.es
- DONOSTIA: Illunbe 9 bis. 20011
  Tel.: 943459033. Fax: 943 470 098
  E-posta: guipuzcoa@pp.es
- BILBO: Kale Nagusia 89, 5. sol. 48011
  Tel.: 944 399 277 Fax: 944 417 991
  E-posta: vizcaya@pp.es

PSOE alderdiak ere Herritarrentzako Arreta Bulegoa dauka eta bertara jo daiteke 915 820 000 telefonoa erabiliz. Jendaurreko ordutegia hauxe da: astelehenetik ostegunera: 9:30-14:30 horas eta 15:30-18:00; ostiraletan: 9:00-14:00. Posta elektronikoa: infopsoe@psoe.es

- GASTEIZ: Arka kalea 11, 1. sol., ezk. 01005
  Tel.: 945 231 078
- BILBO: Ibáñez de Bilbao 3
  Tel.: 944 241 606
- DONOSTIA: Prim kalea 15 . 20006

Ondoko lerrotan, alderdi politikoei bidaltzeko idazki eredua proposatzen da:

PRESIDENTE jn./and.

.....(e)ko IDAZKARITZA

Jaun/Andre agurgarria,

Honako idazki honen bidez, joan den egunean (UUUU/HH/EE), ...(e)n, jazo ziren gertaeren berri eman nahi dizut.

(Deskribatu gertatutakoa eta hitzez hitz adierazi alderdiaren organoaren aurrean salatu nahi ditugun adierazpenak)

..... jaunak/andreak goiko adierazpenak egin ditu zu buru zaituen alderdi politikoaren ordezkari gisa eta, gure iritziz, alderdiaren estatutuen aurkakoak dira, talde eta kolektibo desberdinen arteko bizikidetzari zuzenean eraso egiten diotelako eta gainera, ... kolektiboaren aurkako gorrota zabaldu eta bertako kideak gaitzesten dituelako.

Horregatik guztiagatik,

ESKATZEN DUT honako idazki hau aurkeztutzat jo eta onar dezazula eta, goian azaldutako gertaerak aintzat hartuta, diziplina neurri egokiak har ditzazula zure alderdiko ordezkari horren jokamoldea zigortzeko.

.....(e)n, 2018ko .....(a)ren .....(e)(a)n.

11

NORBERAK BOTOA EMATEA EDO BOTOA LAGATZEA

Sarreran esan dugun bezala, botoa emateko ekintzak esanahi asko izan ditzake. Esparru politikoan parte hartzeko bidea izan daiteke; protesta egiteko tresna izan daiteke; boto emateko eskubiderik ez duten pertsonei gure botoa lagatzeko tresna ere izan daiteke.

Nolanahi ere. botoa emateko eskubidea egikaritu nahi duen pertsona batek jakin behar duen lehenengo gauza da Espainiako estatuan indarrean dagoen egungo bozketa sistemaren nondik norakoak ezagutzea. Ikus dezagun.

Nola dabil egungo hauteskunde sistema?

Bi elementuk osatzen dute egungo hauteskunde sistema:

- Araubide orokorrak estatu osoari eragiten dio. Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoak Diputatuen Kongresurako eta Senaturako hauteskundeak arautzen ditu.
  - Kongresuan, 350 diputatu aukeratzen dira (50 probintzietakoak, Ceuta eta Melillakoak).
  - Senatua, berriz, lurralde ordezkaritzako ganbera da eta bi motatako senatariak aritzen dira bertan: 4 senatari probintzia edo lurralde bakoitzeko eta, gutxienez, beste bat autonomia erkidego bakoitzeko milioi bat biztanletik gora.
- Autonomietako hauteskunde legeak, horiek eragiten baitiete estatua osatzen duten 17 autonomia erkidegoetako hauteskunde prozesuei (Ceuta eta Melilla ere kontuan hartu behar dira).

Balio dezatela honako eskema hauek sistema ulertzeko, batez ere, lehenengo aldiz botoa ematen dutenentzat.

!



!

Biziki garrantzitsua da botoa emateko eskubidea egikaritzeari buruzko argibide batzuk ematea:

- Hauteskunde orokorretan, Espainiako herritartasuna duten eta adinez gorakoak diren pertsona guztiek botoa eman dezakete (Estatuan bizi direnek nahiz atzerrian bizi direnek), betiere botoa emateko eskubidea kendu ez bazaie.
- Autonomia hauteskundeetan, hauteskunde egunean 18 urtetik gora eta Espainiako herritartasuna duten lagunek eman dezakete botoa, erroldan izena emanda badaude edo, atzerrian bizi badira, boto eman nahi duteneko autonomia erkidegoa haien azken administrazio auzotasuna izan bada.
- Udal hauteskundeetan, dena delako udal erroldan izena emanda daudenek boto eman dezakete (ezin dute botorik eman atzerrian bizi diren eta Espainiako herritartasuna duten pertsonek).Era berean, atzerriko herritar hauek ere botoa eman dezakete:a) Herritartasuna eskuratu gabe ere, Espainian bizi eta Europar Batasuneko herritartasuna duten herritarrek; b) espainiarrei beste herrialde batzuetako udal hauteskundeetan botoa emateko modua ematen dieten herrialdeetako biztanleek, dagokion hitzarmenean hala jasota egonik.
- Boto zuriak eta boto baliogabeak ez dute islarik hauteskundeen emaitzetan, baina eragina dute horietan, bakoitzak modu batean. Boto zuria “boto balioduntzat” jotzen da eta, beraz, gainerako botoen kopuruari gehitzen zaio, hauteskundeen legeak ordezkaritza lortzeko ezartzen dituen mugak zenbatzeko helburuz.Hala, zenbat eta boto baliodun gehiago eman, orduan eta boto gehiago lortu beharko ditu alderdi batek % 5era heltzeko eta zinegotzi bat ateratzeko udal hauteskundeetan.

---

https://imagomundis.wordpress.com/2015/04/29/2o-bach-historia-espana-tema-la-transicion/

Nola eman dezake botoa botoa emateko eskubidea ez daukan jendeak?

Europako erkidegoz kanpoko atzerritarrek ezin dute botorik eman eta, gainera, gorrotoaren diskurtsoaren xede taldea osatzen dute. Duela urte batzuetatik hona, gizarte mugimenduek eta mugimendu pribatuek botoa lagatzeko kanpainak egiten dituzte.Kanpainaren xedea da botoa emateko eskubidea duten pertsonak eta atzerritarrak elkartzea, botoa ematera elkarrekin joan daitezen.Botoa emateko eskubidea egikaritzea duenak gutunazalean sartuko du etorkinak emango lukeen botoaren txartela, azkenak botoa emateko eskubidea izango balu.

Zein da ultraeskuinaren mapa gaur egun?

Alderdi politikoek Espainiako estatuan egun duten ordezkaritzaz eta ultraeskuinak Europako Parlamentuan zein Europako herrialde batzuetan duten ordezkaritzaz jakiteko, “Por Causa” Fundazioaren ondoko txostena irakurtzea gomendatzen dizuegu: *ANTINMIGRACIÓN. El auge de la xenofobia populista en Europa.* Txostena helbide honetan deskarga daiteke:

https://porcausa.org/wp-content/uploads/2017/09/ANTINMIGRACI%-C3%93N-El-auge-de-la-xenofobia-populista-en-Europa-Fundaci%-C3%B3n-porCausa.pdf

12

GRAFITIAK GUNE PUBLIKOETAN

Zer da grafitia?

Grafitiak pintadak dira, oro har, esprai edo aerosolez egindakoak, eta horma, harresi edo fatxadetan egin ohi dira, mezu gehienbat politikoa, soziala, aldarrikapenezkoa edo ideologikoa zabaltzeko, lengoaia adierazkorra erabiliz, artistikoa eta estetikoa.

Bada grafitien aurrekaririk gorrotoaren adierazpide gisa?

Bigarren Mundu Gerran, naziek hormak eta harresiak zerabiltzaten herritar judutarren aurkako gorrotoa zabaltzen zuten mezuak pintatzeko haietan. Era berean, Hitlerri aurre egiteko mugimenduek bide publikoak erabili izan zituzten nazismoaren aurkako mezuak kontu handiz adierazteko.

Zer alde dago pintaden eta grafitien aldean?

Alde batetik, pintadetan (funtsean, horma batean idatzitako mezuak dira pintadak) hitzak edo esaldiak idazten dira eta eduki semantikoak adierazten dira. Izan ere, pintadaren gauzarik garrantzizkoena hitzez adierazten den edukia da.

Beste alde batetik, grafitiak (hormako mezu ikoniko eta piktorikoak) “ikustekoak dira, ez kontatzekoak”, Amando de Miguel pentsalariak dioen bezala. Grafitiak pintadak baino kriptikoagoak dira, molde artistikoa dute, batzuetan ez dute hitzik eta, azken batean, grafitiaren alderdirik garrantzitsuena eitea da.

Legezkoak al dira pintadak eta grafitiak?

Oro har, pintadak ezkutuan egiten dira eta horien egileek, nahiz eta sinatzen duten, anonimatua gordeta sinatzen dituzte (izan ere, pintadaren alboan izenik agertu arren, sinadurak elkargo, mugimendu ideologiko edo talde jakin bat ordezkatzen du).

Grafitiak legezkoak edo legez kontrakoak izan daitezke.

- Legezko grafitiak ditugu arte jarduera hori garatzeko berariaz gordetako lekuetan egiten direnak.
- Legez kanpoko grafitiak ditugu gune publikoetan baimenik gabe margotzen direnak.Bide publikoan esprai eta margoak erabiliz egiten diren grafitiek (hainbat euskarritan, hala nola hormetan, publizitate hesietan, fatxadetan…) nahiz azidoa erabiliz kristaletan, erakusleihoetan edo garraiobide publikoetako leihoetan egiten diren grafitiek kalte larriak eragin ditzakete grafitiak egiten direneko euskarrietan.Horren ondorioz, espedientea hasaraz daiteke grafitiaren egilearen aurka, zigor arloko falta gisa edo arau hauste administratibo gisa.

Zer-nolako zigorra ezar daiteke legez kanpoko grafiti bat egiteagatik?

“nosomosdelito.net” (https://nosomosdelito.net/sites/default/files/public_files/documentos/lsc_y_cp-grafiterxs.pdf) webgunean ageri dira, pintadak edo grafitiak eginez, jabari publiko edo pribatuko ondasun higigarri edo higiezinak zikintzen dituztenei eta kalteak sorrarazten dituztenei ezarri ahal zaizkien zigorrak eta salaketak.

13

GIZARTE MOBILIZAZIOA ETA PLATAFORMAK

Zer da gizarte mobilizazioa?

MOSAIKOk sakon landu eta garatu du gizarte mobilizazioaren kontzeptua.

MOSAIKO izeneko ekimenean, Euskadiko eta Asturiasko antolakundeak elkartu ziren garapenerako hezkuntzari buruzko gogoeta egiteko. Ekimen horren ondorioz argitaratu diren materialen artean, “Reflexiones sobre Movilización social” izenekoa nabarmendu behar dugu, gaur egun bertako gogoetak indarrean daudelako eta interes handikoak direlako.

https://iniciativasdecooperacionydesarrollo.files.wordpress.com/2012/04/2012_04_docmovilizacionmosaiko.pdf

Gogoeta horietan, “gizarte mobilizazioa” kontzeptuan proposatutako definizioa interes berezikoa da gure gidarentzat.

Gizarte mobilizazioa, justizia soziala garatzeko gizarte eredu menperatzailearenganako proposamen alternatiboak eta kritikoak sustatzeko ekintza kolektiboen partaidetza-prozesua da. Transformazioa, espazio publikoen okupazioan oinarritzen dela onatzen du prozesu honek; alternatiba hauei buruz salatzeko, aldarrikatzeko, hezitzeko eta sentzibiizatzeko.

Zein dira funtsezko elementuak gizarte mobilizazioaren prozesuaren barruan?

MOSAIKOri jarraiki, ondoko alderdiak dira funtsezkoak gizarte mobilizazioan:

- sormena,
- afektibitatea,
- egunerokoari lotzea,
- elkarrengana hurbiltzea,
- elkarri laguntzea,
- tokikoaren eta globalaren

Gizarte mobilizazioak aurrera ateratzeko, herri plataformen edo herri ekimenen sorrerak lagundu egiten du funtsezko elementuak elkartzen, babesten eta koordinatzen.

Zer gako hartu behar da kontuan gizarte mobilizazioaren tresna erabiltzerakoan?

Gizarte mobilizazioaren tresna erabiltzerakoan, ondoko alderdiak hartu behar dira kontuan:

- Nola. Mobilizazioa gune edo espazio publikoan egin daiteke manifestazio batez, flashmob delako batez, elkarretaratzeak eginez, isiltasun zirkuluak eratuz… Ziberekintza aurreko tresna guztien osagarria izan daiteke.
- Komunikazio estrategia. Komunikazio estrategia dugu komunikazio arloko gidalerro eta ekintzen multzoa, denboran antolatu eta garatzen direnak, hasierako egoera aldaraztea xede duen komunikazio helburua lortze aldera, hasierako egoera hori baino hobea den beste batera igarotzeko.
- Erakundeen parte hartzea. Gizarte mobilizazioetan, erakundeen parte hartzeak beti ekartzen ditu sakoneko eztabaidak. Mobilizazioari laguntzeak baina horren lidertza ez hartzeak ahalbidetu dezake lortu nahi diren helburuak erdiesten.
- Noiz. Ez dugu mobilizaziorik sustatu behar zeinahi gauza lortzeko eta betiere ez da mobilizatzea komeni.Mobilizazio orok parte hartzea behar du, baina parte hartze orok ez du mobilizazioaren xede izan behar. Tenporizazioa egoki landu behar da.
- Zailtasunak. Gizarte mobilizazioak inguruneko eta barruko eragozpen batzuk gainditu behar ditu. Lehenengoei dagokienez, honakoak nabarmendu behar ditugu: gizarte geldotasuna edo apatia, desinformazioa eta, batzuetan, gizarte ekimenen kriminalizazioa. Bigarrenei dagokienez, gizarte mobilizazioari askotan darion “endogamia” aipatu behar da (pertsona berberek parte hartzen dute hainbat mobilizaziotan); antolakundeen arteko errezelo eta mesfidantzak, mobilizazioa lideratzeko arazoak.

Zer beste alderdi hartu behar da kontuan tresna erabiltzerakoan?

Gizarte aldaketa sustatzeko kanpaina eta komunikazioan eta herritarren eraikuntzan aditua den Jorge Castañedaren arabera, plataformak eratzeko eta gizarte mugimenduak kudeatzeko prozesuetan, ondoko alderdiak aintzat hartu behar dira:

- Gizarte mobilizazioa gizarte eraldaketa ahalbidetzeko bidea da, bai eta "aldaketaren protagonista izateko aukera ikusarazteko modua ere". Helburua da "ekintza ikusaraztea eta politikan eragitea (botere eta erabakimen esparruetan), bidegabea den egoera bat bihurtzeko".
- Informazioa eta aurretiazko gogoeta giltzarriak dira, "hautazko proposamenak egin ahal izateko".
- Parte hartzea ere, prozesua den heinean, beste giltzarrietako bat dugu. "Prozesu jarraitua eta iraunkorra da, beste pertsona batzuekin batera, gizarte harreman eta esparru guztien multzoan esku hartu eta horiek eraldatzeko".
- Kalea gizarte mobilizazioa garatzeko eremu nagusia da eta, horren osagarri, eremu birtuala ere erabil daiteke. Kontuz ibili behar da sarearen bidez sustatzen diren mobilizazioek (ziberekintzak), pertsonak desmobiliza ez ditzaten aurrez aurreko eremuetan.
- Mobilizatzeko, oso garrantzitsua da abstrakziorik ez erabiltzea, proposamena zehatza egitea eta ekintza sortzaileak bultzatzea.
- "Gizarte mobilizazio guztiek ez dute sekulako jendetza behar. Baliteke une jakin batean jende asko mobilizatu behar izatea, eta beste batzuetan lagun batzuk-batzuk kalean egotea. (…) Batzuetan, lagun askoko mobilizazioetara deitze hutsak gelditu egiten gaitu".
- "Egunerokoarekiko lotura: Pertsona eta taldeen egungo egoeretan oinarritzen diren ekintzak proposatu behar dira. Ekintzak are errazagoak dira gure eguneroko zereginetan gauzatzea daukagunean".
- Jende orok parte hartzeko aukerak eskaini behar dira, hots, hein handi batean, ahalbidetu behar da "pertsona bakoitzak konpromisoa hartzea nork dauzkan aukeren arabera".

Iturria: https://jorgecastaneda.es/que-es-la-movilizacion-social/

TXINPARTAREN AURKAKOAK





liteek sustatzen duten globalizazioaren eraginez, batik bat, ekonomiaren eta finantzen globalizazioaren eraginez, herritarrak beren barruan biltzen dira eta, horregatik, nork bere burua ezagutzeko kultura eta bizikidetza esparruak bilatzen ditu. Hala, herritarrak ohartzen dira eliteak munduaz arduratzen direla, baina ez direla "benetako "arazoez" arduratzen. Terrorismo globalaren eta migratzaileen joan-etorriek ekarritako kultura aniztasunaren egungo esparruan, etendura hori dugu auzo askotan, osasun etxeetan eta enplegu bulegoetan sarritan pizten den txinparta.

Norbaitek Alaren izenean lehergailu bat jar dezala saihestea erabat urrun dago gidaliburu honen helburuetatik. Horregatik, onartu behar dugu etorkizunean ere txinpartak piztuko direna: Baten batek Alaren izenean lehergailua jarri edo jaurtiko duena. Norbaitek Alaren izenean lehergailu bat jarri duelako, musulmanen aurkako gorrotoa baztertzea estereotipoen katea apurtzea da, kate horren lehen maila aurreiritzia baita eta, azkena, musulmanen aurkako indarkeria sustatzen duen diskurtsoa. Hori, baina, sentsibilizazioa eta prebentzioa lantzeko beste gidaliburu baten gaia izango litzateke. Txinparta pizteko arriskua beti egongo da hor. Ahalegindu gaitezen txinparta piztu ez dadin; eta piztuz gero, sua zabal ez dadin.

NAHASITAKO AIREAREN AURKAKOAK

HEDABIDEEN EREMUA

14

ZUZENDARIARI GUTUNAK ETA IRITZI ARTIKULUAK

Zertarako balio dute zuzendariari idatzitako gutunek eta iritzi artikuluek?

Diskurtso arriskutsuari kontrarrelatuaren bidez aurre egin dakioke, iritzi artikuluak eta zuzendariari bidalitako gutunak idatziz.

Nola idazten da zuzendariarentzako gutun bat?

Guztiok idatz ditzakegu zuzendariarentzako gutunak.

- Laburrak izan behar dira, 12 edo 30 lerrotik beherakoak, hedabidearen arabera.Adibidez: El País egunkariak, gutxienez, 200 hitz eskatzen ditu gutunetan.
- Zuzendariari idatzitako gutunetan, onena da ideia bakarra adieraztea salatu nahi dena azaltzeko, izenburu erakargarri eta zirikatzailea baliatuz.
- Izen-abizenez sinatu behar dira eta NAN zenbakia, posta helbidea eta telefonoa ere jaso behar dira gutunean.
- Posta elektronikoz bidaltzen dira.
- Mezu elektronikoaren Gaia eremuan, hauxe idatzi behar da: “Zuzendariari gutuna, …(a)ri buruzkoa.
- Zuzendariari idatzitako gutun bat hainbat hedabidetara bidal daiteke, batzuk lehenetsi daitezke bidaltzerakoan edo hedabide guztietara bidal daiteke aldi berean, helbideak ezkutuko kopian (CCO edo BCC) jarrita.

Zein helbidetara bidali behar dira gutunak?

BERRIA> webgunea@berria.eus

DEIA> iritzia@deia.eus

EL CORREO> cartas@elcorreo.com

EL MUNDO> cartas.director@el-mundo.es

EL PAIS> https://elpais.com/formularios/cartasdirector.pl

GARA> https://www.naiz.eus/es/contacto

NOTICIAS DE ÁLAVA> cartas@noticiasdealava.eus

NOTICIAS DE GIPUZKOA> cartas@noticiasdegipuzkoa.eus

PÚBLICO> http://www.publico.es/contacto/cartas-director/

Nola bidaltzen dira iritzi artikuluak?

Autonomia erkidegoetan erredakzioa duten zabalkunde handiko egunkari idatzietan (El País, El Mundo, La Vanguardia), zaila da iritzi artikuluak argitaratzea. Hala ere, aukera handiagoa dago iritzi artikuluak argitaratzeko egunkari horien bertsio digitalean.

Gure ingurune hurbilean, Gara, Berria, El Correo edo Noticias Taldeko egunkarietan nahikoa erraza da iritzi artikuluak kaleratzea (hala ere, hedabide guztietan, esklusibotasuna eskatzen dute, hau da, bakarrik argitaratuko dute beste hedabide batek onartu edo argitaratu ez badu). Iritzi artikulua Zuzendariari gutunak atalean azaldu dugun bide berdina erabiliz bidali ohi da.

15

CROWDFUNDING BIDEZ ORDAINDUTAKO PUBLIRREPORTAJEAK

Gaur egun, hedabideetan txertatzen den publizitatea mezu igorlerik indartsuenetakoa da. Hala, publirreportajeak txertatzea tresna guztiz eraginkorra izan daiteke zigortzeko moduko diskurtsoaren aurreko kontrainformazioa sortzeko.

Zer da publirreportajea?

Publirreportaje deritzon publizitate piezak mezu jakin bat garatzen du ikuspegi editorialetik eta albiste itxura dauka.

Publirreportajearen diseinua egokitu daiteke txertatzen deneko hedabidearen barruko orrialdea dela emateko, bai argi eta garbi adierazi behar da ordaindutako atala dela, irakurleei iruzurrik ez egiteko.

Zenbat balio du publirreportajea egunkariren batean txertatzeko orrialde batek?

Publirreportajea erabiltzeko oztoporik handiena dugu, oro har, publizitatea egunkarietan txertatzea biziki garestia dela. Behean, orrialde osoko publizitatearen ziozko prezioen adibideak ageri dira. Gutxi gorabeherako prezioak dira, zenbatekoa asteko egunaren eta orrialdearen (bikotiaren/bakoitiaren) kokapenaren araberakoa baita:

El País	50.900 €
El Mundo	42.500 €
ABC	22.955 €
La Vanguardia	20.200 €
La Razón	18.700 €
El Correo	10.200 €
GARA	5.300 €
DEIA	5.000 €
Berria	4.800 €
Noticias de Álava	3.000 €

Nola ordain dezake zenbateko hori herritarren plataforma batek edo elkarte batek?

Publirreportajea hedabide batean txertatzeko gastua ordaindu ahal izateko, *crowdfunding* delakoa edo mikromezenasgoa baliatu daiteke, hots, Internet bidezko finantzaketa.

Sare sozialetan *crowdfunding* kanpainaren berri emate hutsak, berez, hedabide batean publizitate gisa txertatu nahi den mezua zabaltzen lagunduko du.

Hedabideek erabaki al dezakete publirreportajea argitaratzen duten?

Egunkari bakoitzak irizpideen barruko kodea darabil iragarkiak onartzerakoan.

Oro har, hedabide guztien estilo liburuetan adierazten da “publizitateak etikaren oinarrizko arauei men behar diela eta irakurleak errespetatu behar dituela”. Halaber, azaltzen dute dena delako hedabideko zuzendariak “edukien legezko arduraduna den aldetik, beretzat gordetzen duela hedabidearen beraren printzipio editorialaren aurka dauden edo legez aurkakoak izan daitezkeen merkataritza edukiak alda



KATE-ERREAKZIOAREN AURKAKOAK

HEDABIDEEN EREMUA

16

KEXAK PRENTSA ETA TELEBISTAKO BARRUKO KONTROL ORGANOEI

IRAKURLEEN ETA IKUSLEEN DEFENTSAK

Zer da barruko kontrol organoa hedabide batean?

Irakurle eta ikusleen defentsa organoa da. Hala nahi duen hedabideak eratzen du herritarrengana hurbiltzeko xedez, hedabidearen beraren eta ikus-entzuleen arteko elkarreragin bidea baliatuta. (Gidaliburu honen hurrengo fitxetan jaso diren kontrol tresnak ez bezala, ondoan deskribatuko ditugun tresnak hedabideek eurek sortutakoak dira, irakurle eta ikusleen konfiantza eta sinesgarritasuna sendotzeko).

Tresna horren bidez, erabiltzaileek iradokizunak eta kexak bidal ditzakete zuzenean hedabidera; hala, hedabide horren kontsumitzaileek erreklamazioak egin ditzakete informazio jakin batzuen trataera desegokia edo etikaren kontrakoa dela eta.

Noiz erabil daiteke kexa sistema hori?

Hedabide batek Kazetaritzaren kode deontologikoari atxikitako arau etikoak betetzen ez baditu ordezkari politiko baten diskurtso xenofoboaren berri ematen duenean, hedabide horretako irakurleek, entzuleek edo ikusleek kexa aurkez dezakete hedabide horren aurrean.

Kexak bidaltzeko sistema horrek garrantzi handia dauka, nahiz eta Internetek herritarren eta hedabideen arteko harremana hein handian ahalbidetu.

Noizkoa da irakurleen lehen defendatzailea?

Idatzizko hedabideetan, irakurleen lehen defendatzailea 1916. urtean sortu zen Suedian, eta gainerako herrialdeetan orokortu zen laurogeiko hamarkadan.

Zer hedabidek dauka tresna hori eta nola balia daiteke kexak eta iradokizunak bidaltzeko?

1. Gaur egun, ***idatzizko bi hedabidek*** sortuta dute irakurleen defentsarako tresna.

- EL PAÍS egunkariak tresna hori eskaintzen du posta elektronikoz: defensora@elpais.com;
  edo telefonoz: 913 378 200.
  Ondoko webgunean, informazio gehiago eskuratu daiteke:
  http:// blogs.elpais.com/defensor-del-lector/
  Inprimakia ere aurki daiteke webgunean
- LA VANGUARDIA egunkariak era posta elektronikoz eskaintzen du irakurleen defentsa: defensor@lavanguardia.es

2. ***Hedabide digitaletan,*** El Diario.es egunkariak komunitatearen defentsa eskaintzen du. Iradokizunak eta kexak ondoko webgunea erabiliz bidal daitezke: https://www.eldiario.es/defensor/contacto

3. ***Ikus-entzunezkoak***

3.1. Ikus-entzunezko publiko guztiek badute ikus-entzuleen defentsa.

- RTVE. RTVEren hedabideetako ikusleen, entzuleen eta erabiltzaileen defentsa 2007. urtearen amaieran sortu zen. Zeinahi pertsonak bidal ditzake kexak erakunde horretara ondoko webgunea erabiliz: http://www.rtve.es/participacion/defensor/ Gehienez ere, 30 eguneko epean, ikusleen defendatzaileak konpromisoa hartzen du jasotako kexa eta iradokizunei erantzuteko.
- EiTB. EiTBko telebista, irrati eta Interneteko erabiltzaileen defentsa dugu herritarren eskubideak babesteko organoa Euskal Irrati Telebista erakundearen jardueraren aurrean. Horretarako, defentsak jagon behar du erakundea arautzen duen legeak ezartzen dituen manuak bete daitezen. Kexak bidaltzeko, ondoko webgunean ageri den inprimaki bat bete behar da: https://www.eitb.eus/eu/eitb-taldea/defentsa-bulegoa/bidali-zure-iradokizuna/

  Inprimakia bete ondoren, posta elektronikoz igorri behar da ondoko helbidera: defentsa_bulegoa@eitb.eus, egilearen nortasun agiriaren (NAN, pasaportea edo AIZ) kopiarekin batera; bestela, bi agiri horiek (inprimakia eta norberaren identifikazioa) posta arruntez bidal daitezke honako helbire honetara: Defentsa Bulegoa EiTB, Basurtuko kaputxinoak 2, Bilbo 48013 (Bizkaia).

3.2. Telebista pribatuetan, 13 TV hedabideak irakurleen defentsa eskaintzen du. Kexa-iradokizunak ondoko helbide elektronikoa erabiliz igor daitezke: lahoradelespectador@13tv.es

Honako webgune honetan, informazio gehiago eskura daiteke:

http://trecetv.es/el-defensor-del-espectador

3.3. Telebista pribatu batzuek ikus-entzunezko enpresari lotutako posta elektroniko orokorra eskaintzen dute. Hala, esate baterako:

- Tele 5, Cuatro, Divinity, FDF, Energy, Mediaset: mediasetcom@mediaset.es https://www.mediaset.es/mediasetcom/Contacta_0_2457000782.html
- Antena 3 La Sexta Neox, Mega, Nova, Artesmedia fundacion@fundacionatresmedia.org

17

IRIZPEN ESKAERA ESPAINIAKO KAZETARIEN ELKARTEEN FEDERAZIORA

FAPE

Zer da FAPE?

FAPE Espainiako kazetarien lehen lanbide elkargoa da. 49 elkarte dira federazioko kide eta beste 19, berriz, federazioari atxiki zaizkio. Hala, elkarte guztiak kontuan hartuta, 19.000 kazetari ditugu erakunde horretako kide.

Zer da FAPEren Arbitraje, Kexa eta Deontologia Batzordea?

Kazetaritzaren Arbitraje, Kexa eta Deontologia Batzordea autokontrol organoa da eta irizpenak ematen ditu Espainiako Kazetarien Elkarteen Federazioaren Kode Deontologikoaren betetzearen gainean.

Kazetaritzaren Arbitraje, Kexa eta Deontologia Batzordea kazetaritzaren barruko kontrol deontologikoa jagoteko organoa da.

Horren helburua kazetaritza etikoa sustatzea da, autorregulazio aske eta arduratsutik abiatuta, bitartekaritza eta elkar aditzea baliatuz.

Kazetaritza lanbidearen eta informazio jakin batzuen aurrean minduta sentitzen diren herritarren arteko arbitraje organoa da. Ez dauka zigortzeko eskumenik, baina federazioan bildutako elkarteek eta kazetariek ematen diote agintaritza morala eta araubide juridikoaren osagarria da.

Kazetaritzaren Arbitraje, Kexa eta Deontologia Batzordearen Fundazioak bertan parte hartzen dute federazioaren helburuekin bat datozen pertsonek, enpresek eta erakundeek ahalbidetzen du batzordearen jardunbidea eta jarduna askatasun osoz gara dadin.

Kazetaritzari, Zuzenbideari, hezkuntzari eta gizarte esparruetako hainbat jarduera nabarmeni lotutako pertsona esanguratsuek osatzen dute batzordea.

Kazetaritzaren Arbitraje, Kexa eta Deontologia Batzordea honako antolakunde honen barruan dago: *Alliance of Independent Press Councils of Europe.*

Kazetaritzaren Kode Deontologikoaren zein atal balia daiteke diskurtso politiko xenofoboari buruzko kazetaritza trataera arduragabearen aurkako erreklamazio batean?

Zeinahi kazetarik lanbidean jarduten duenean izan behar dituen profesionaltasun eta etika printzipioei gagozkiela, bereziki garrantzitsua da honako hau: 7. printzipioa, Kazetaritzaren Kode Deontologikoa zehazten duena:

> 7. Kazetariak zorroztasun osoz jokatuko du ahulenen eta baztertuenen eskubideak errespetatzerakoan. Horregatik, zorroztasun handiz landu behar ditu eduki diskriminatzailea dakarten iritziak edo informazioak, indarkeria susta dezaketenak edo giza jarduera apalesgarrien berri ematen dutenak.
>
> a) Aurrekoa dela eta, ez du pertsona baten arraza, kolorea, erlijioa, gizarte maila edo sexua mespretxuz edo aurreiritziz aipatu behar, ezta pertsona horrek pairatzen duen gaixotasunik, desgaitasun fisikorik edo mentalik.
>
> b) Era berean, ez ditu halako datuak argitaratu behar, kaleratu beharreko informaziorik zuzeneko lotura izan ezean.

Nola kexatu daiteke norbanako bat FAPEren aurrean?

Kode Deontologikoa urratu dela pentsatzen duen edozein pertsonak espedientea zabaltzeko eska dezake.

Erreklamaziogileak idatziz aurkeztu beharko du espedientea zabaltzeko eskaera, Arbitraje, Kexa eta Deontologia Batzordera igorri beharko du eta ondoko datuak adierazi beharko ditu idazkian:

- Norberaren datuak (izen-abizenak, helbidea eta NAN zenbakia).
- Deontologia araubidearen balizko urraketa eragin duten gertaeren azalpena.
- Erreklamaziogileak urratutzat hartzen dituen Kode Deontologikoaren arauak adierazi behar ditu.

FAPEren webgunean (http://www.fape.es), Kode Deontologikoa eta idazki eredua eskura daitezke.

Salatutako gertaerak egin direnetik bi hilabete igaro baino lehen bidali bahar dira eskaerak.

Nola erantzuten du FAPEk diskurtso iraingarrien informazio trataera desegokiak direla eta?

Kexa aztertu ondoren, Arbitraje, Kexa eta Deontologia Batzordeak irizpena emango du eta, irizpen horretan, salatu den berriaren informazio trataerak Kode Deontologiaren arauren bat urratu duen ebatziko da.

18

MALDITO BULO ETA *MALDITA HEMEROTECA*

Zer da Maldita.es plataforma?

Maldita.es kazetaritza proiektu independentea da, eta horren helburua da “tresnak eskaintzea irakurleei iruzurrik egin ez diezaieten”. Maldita.es plataformaren atalek diskurtso politikoa eta sare sozialen bitartez zabaltzen diren informazioak monitorizatzen dituzte eta mezua aztertzen dute, datuen kazetaritzako teknikak erabiliz informazioa egiaztatzeko. Egindako lana dela eta, *Maldita Hemeroteca* sailak Kazetaritzako José Manuel Porquet saria jaso zuen 2015ean eta finalista izan zen European Press Prize delakoan 2016an.

Maldita.es plataforma 2017an sortu zen plataforma digital gisa, eta ondoko sailak jasotzen ditu barruan: *Maldito Bulo, Maldita Hemeroteca, Maldito Dato* eta *Maldito Deporte*. Plataformaren barruko sail bakoitzak eginkizun zehatz-zehatza dauka. Hala, *Maldita Hemeroteca* sailean, politikarien kontraesanak ageri dira eta “iruzurrik egin ez diezazuten” ahalegintzen da. *Maldito Bulo* saila Internetetik barrena hedatzen den gezurrezko informazioaren aurkako tresna da, politika eta gizarte eremuetan.

Zertan datza Maldito Buloren jardunbidea?

Maldito Bulo plataformaren jardunbidea ondokoa da:

- “Madarikatuen” komunitatea osatzen duten pertsonek (webgunean izena emanda daudenek) gezurren berri ematen dute.
- Argitaratutako informazioa egiaztatuko da. Gezur motaren arabera, alderdiari edo ordezkari politikoari deituko diote informazioa alderatzeko, Interneten datuak bilatuko dituzte…
- Frogabideak aurkeztuta, gezurrari buruzko bozketa egingo da Maldito Buloren gainerako kideekin batera, hau da, beste hedabide batzuetako hainbat kazetarirekin batera.
- Gezurtapenari buruzko bozketa egingo da eta webgunean argitaratuko da.

Plataformak erabiltzailearen eskuliburua eskaintzen du plataforma ezagutu eta erabiltzen trebatzeko:

https://www.youtube.com/watch?v=oM2KXjGLYNQ

Maldito Bulo plataformaren webgunean, gezurrei buruzko informazioa (gezurtatzen den informazioari buruzkoa) eta maldita.es komunitatea osatzen duten sailei buruzko informazioa aurki daiteke, bai eta eskuko telefonoan instalatzeko aplikazioa ere.

https://www.maldita.es/malditobulo/

Zer sailek biltzen ditu diskurtso politikoetan adierazitako informazio kontraesankorrak?

Lehen esan bezala, Maldita.es plataformaren barruko *Maldita Hemeroteca* dugu politikarien kontraesanak erakusten, ikusarazten eta agerian jartzen dituen saila, herritarrei iruzurrik egin ez diezaieten.

Kontraesan horiek guztiak webgunean argitaratzeaz gain, *Maldita Hemeroteca* sailak astean behingo saioa dauka LaSexta telebistaren “El Objetivo” deritzon sailean, eta kontrarrelatuak txertatzen dituzte telebista horretako beste programa batzuetan (“Al Rojo Vivo”, “Más vale tarde” edo “LaSexta Noche”) eta irratiko eguneroko solasaldietan (“Julia en la Onda”).

19

EDUKIAK EZABATZEA SARE SOZIALETAN: FACEBOOK, TWITTER ETA BESTE SARE BATZUK

Facebook eta Twitter sare sozialen bitartez, gure lagunekin eta beste pertsona batzuekin egon gaitezke harremanetan, edukiak, argazkiak eta bideoak partekatu eta zabal ditzakegu, ekitaldiak sortu eta taldeak eratu ditzakegu.

Bada araurik Facebook sarean argitaratu daitezkeen gorroto adierazpenak eta argitaratu ezin direnak arautzeko?

Facebook-ek komunitate arauak darabiltza erabiltzaileen arteko harremanak artezteko, komunikazio ireki eta baketsuko zerbitzua eskaintzearren.

Facebook sareko zein lekutan agertzen dira arauak?

Honako esteka honetan aurkituko ditugu:

https://www.facebook.com/communitystandards/

Gune horretan, abusuak nola salatu azaltzen da.

Hain zuzen ere, arautegi horretan, “indarkeria eta jokabide kriminala” deritzon esteka dago eta, bertan, hauxe esaten da: “ez dugu Facebook sarean onartuko gorrotoa sustatzen duen antolakunderik edo pertsonarik”:

https://www.facebook.com/communitystandards/violence_criminal_behavior/

Nola eska dakioke Facebook-i eduki xenofobo bat kentzeko?

Facebook-eko “Iritziak” saileko bidalketa bat ezabatzeko, ondokoa egin behar da:

1. Bidalketaren goialdean, eskuinaldean, ‘x’ ikurraren gainean klik egin behar da.
2. “Iritzi hau ez dut gustuko” hautatu behar da.
3. Pantailan ageri diren jarraibideak bete behar dira.

Orduan, Facebook-ek erabiltzaileari eskatuko dio arrazoia aukera dezan, erabiltzailearen iritziz, bidalketa hori Facebook-en zergatik argitaratu beharko ez litzatekeen azaltzeko helburuz. Hizpide darabilgun kasuan, mehatxuak eta irainak dauzkan edukia izango litzateke eta, hortaz, horri ondoen doakion aukera hautatu beharko litzateke.

https://www.facebook.com/help/1709360766019559?helpref=page_content

Facebook-en salatzeko, “Ekintzak” eremua klikatu behar da (goialdean, eskuinean), eta gero, “Salatu spama edo abusua”.

Zeinahi pertsonak iruzkin xenofobo zigorgarri bati buruzko frogak aurkeztu nahi baditu, pantaila argazkien bidez edo egilea identifikatzeko modua ematen duen edozein dokumentu grafikoren bidez egin dezake. Ildo horretan, Windows sistema eragilean, pantaila argazkiak egin daitezke Alt+Impr Pant teklak sakatuta; Mac OS X sistema eragilean, berriz, Maiuskuluak+Kontrola+Komandoa+3 teklak sakat behar dira.

Nola eska dakioke Twitter sareari iruzkin xenofoboak kentzeko?

Twitter-en zuzeneko mezuak ezaba daitezke sareko zuzeneko mezuen zutabeetan bertan (sarrera bandeja). Zuzeneko mezua ezabatuz gero, hartzailearen sarrera bandejako zutabetik eta igorlearen irteera bandejako zutabetik ere kenduko duzu.

Era berean, Nire txioak izeneko zutabetik bidalitako txioak ere ezaba daitezke. Bidalitako txio bat ezabatuta, Hootsuiteko aginte paneletik eta Twitter-eko kontrol paneletik ere ezabatuko da.

Dena dela, mezuak beste sare sozial batzuetan (hala nola Facebook-en eta LinkedIn-en, aukeratuz gero) berez argitara daitezkeenez, erabiltzaileek saioa hasi beharko dute banan-banan sare horietan, mezua denetan ezabatzeko.

Zuzeneko mezu bat ezabatzeko, jarraibideak ondokoak dira:

1. Aukeratu **Zutabeak**, hasiera menuan.
2. Klik egin zuzeneko mezuen zutabeak dauzkan erlaitzean (sarrera bandeja).
3. Klik egin **Gehiago** aukeran, zuzeneko mezuaren azpian eta, gero, klik egin **Ezabatu** aukeran.

Bidalitako txioa ezabatzeko:

1. Aukeratu **Zutabeak**, hasiera menuan.
2. Klik egin Nire txioen zutabea daukan erlaitzean.
3. Klik egin **Gehiago** aukeran, txioaren azpian eta, gero, klik egin **Ezabatu** aukeran.

Facebook eta Twitter sareetako zein helbidetara jo dezakegu gure eskaera kudeatzeko moduarekin ados egon ezean?

Konpainia horiekin zuzenean harremanetan jarri nahi badugu, hona hemen helbideak:

FACEBOOK

Facebook Ireland Ltd

4 GRAND CANAL SQUARE, GRAND CANAL HARBOUR, D2 Dublin IRELAND

phone: +0016505434800 fax: +0016505435325

TWITTER

Twitter International Company

42 Pearse Street. Dublin 2

Dublin 2 IRELAND

phone: +1415-613-3818 fax: +35316750645